

KONTXITA MAÑARIKUA

«Kubako bizimodu normala egin dut hemen naizenetik»

Behin edo behin, mezu kriptikoa postontzian: “Emakume bat dago hemengo Asociación Vasco-Navarra de Beneficencia-n, familiako historia interesgarria duena: Concepción Mañaricúa Lezamiz (Durango, 1921), gerrako exiliatua, ja nahiko zaharra”. Habanan da emakumea.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero



Habanan zaitugu, baina, jakinarazi didatenez, durangarra zara sortzez.

Bai, 1921eko abenduaren 3an jaio nintzen, Durangoko Artekalen. Hilaren 3an jaio, baina 8an bataiatu ninduten. Horregatik naiz Kontxi, Kontzesio egunez bataiatua naizelako. 4 urte eta 5 hilabete nituen Kubara etorri nintzanean. Akordatzen naiz Durangon, gure etxe ondoan, izkina batean, txikoria fabrika

bat zegoela. Handik urteetara Durangon izan zen nire alaba Diony, eta nik esandakoa egiaztatu zidan, han zegoela fabrika hura, edo egona zela, behintzat; beste zerbait jarriko zuten honezkero, urte asko dira eta. Beste izkinan, berriz, parke moduko bat zegoen, eta ni hunkitu egiten ninduen bertan emakumeak dantzan ikusteak. Pasodoblea dantzatzen zuten.

KONTXITA MAÑARIKUA

Oroitzapen horixe zuk Durangokoa, neska txikia zinenekoa.

Eta han moja ikastetxean ari nintzela ere badakit, harik eta Kubara etorri ginen arte. Ordurako, aitaita hemen egona zen. Soldadutzarako hartu nahi zuten, Afrikako gerrarako, Marokorako, baina eskapatu eta hona etorri zen. Aitaita hemen egona zenez, aita ere etorri zen. Gero, gure amaren bila joan zen. Aita berriro hona itzuli zenean, han utzi gintuen gu, denok etorri ginen arte. Amak hiru ume ere izan zituen gu baino lehen, baina hil egin zitzaizkion. Bizi izan zirenen artean, Rufina zen ahizpa nagusia. Inoiz ez zitzaion izena gustatu, izenarekin haserre beti hura! Esaterako, aita hil zenean paperak zuzentzera joan behar izan ginen hemen, Kuban, eta bankura joan ginenean, bertokoak: “Miraria da zure ahizpari Rufina izena jarri izana. Zure ahizpa jaio zen sasoi berean, zuen aitaren osaba bat hil zen, Rufino, eta horretan, haren izena jarri zion zure ahizpari, bizi guztian horregatik ernegatzen ibili bazen ere”. Rufina eta gero, Felipe, Gerardo eta Matilde jaio ziren. Ondoren, Isabel, Karmen, eta, azkena, ni. Baten batek esan zion gure amari Maria Concepción izena jartzeko niri, baina amak ezetz: “Nahikoa da izen bakarra. Biharko egunean, hor ibili beharko dugu paperak zuzentzen, eta beti dago saltsa izen askorekin: Concepción izango da, eta kito!”.

Zein eta zein zenituen gurasoak? Durango bertokoak ziren?

Ama nuen Martina Lezamiz Anasagasti. Neba bat zuen Mundakan berton ezkondua, eta bi mutil eta neska bat zituzten; neska, ni baino apur bat gazteagoa zela esango nuke. Mutiletan, bata zen isila, itxi xamarra; aldiz, bestea zen oso sinpatikoa. Grabatuta geratu zitzaidan: mutiko sinpatikoa esan dudan horrek buruan lata bat ipini bi arratoirekin eta hoska hasi zen: “Etxekoandreeee, arrain

Guaiaba

“Guaiaba-barra bila ibili naiz, baina abendutik hona ez da sartu. Hala esaten dute hemen, ‘ez da sartu’. Baina lortu dut, badelako jendea guaiaba duena, eta saldu egiten duena. Eta nik marmelada egiten dut, goxoa, horratik! Eta gauza bat esango dizut, dendan saltzen dutena baino goxoagoa egiten dut nik guaiaba marmelada. Oraindik orain, dendara joan, guaiaba erosi, egindakoa, eta teontzian hartzeko modukoa zen; arin-arina! Nik nahiago dut guaiaba erosi, etxera ekarri, ondo-ondo garbitu, irabiagailuan pasatu, iragazi haziak kentzeko, azukrea ondradu bota eta orduan bai, sendoa marmelada!”.

freskoa, arrain freskoa!”. Haiek barre algarak egiten genituenak! Ama oso emakume gozoa zen, karitategile porrokatua izan zen. Aldiro joaten ginela Mundakara, amaren herrira, horixe gogoratzen naiz, gainerakoa ezabatu egin zait memoriatik. Aita berriz, Felipe Mañarikua Ereñaga nuen. Iurretan jaioa zen, baina ni Durangon etorri nintzen mundura, haraxe joan zirelako bizitzen nire gurasoak. Gero, aita hona etorri zen lanera, hemengo klimara egin zen, eta familia dena etorri ginen. Aitak esaten zuen berton utzi nahi zituela hezurak, Kuban.

Zuek Durangon zinetela, Kubara egin zuen aitak, lanera.

Aita hona etorri zen lanean, bai, familia han utzita. Akordatzen naiz, gu Kubara etorri ginenean, barkuan, italiarrak zetozela. Ni txiki-txikia, 4 urte, eta haietako batek lepoan hartu ohi ninduen, eta barkuko kareletik kanpora ere ipintzen ninduen. Horrek betiko inpresionatu ninduen! Morroi hark nahikoa zuen oker txikiena, ni uretara erortzeko. Horixe daukat akorduan. Itsasoa, inoiz ikusi dudan gauzarik ederrena zait, baina harixe diot beldurrik handiena. Kontu horrek betiko inpresionatu ninduen. 1925ean heldu ginen Kubara, maiatzaren 25ean. Hemen bete nituen 4 urteak. Habanara etorri ginenean nik ez nuen aita ezagutzen. Barkuak atrakatu zenean, amak aita ikusi eta oihu egin zuen: “Felipe! Felipe!”. Eta ez zait bizian ahaztuko, inpresionatu egin ninduelako, aita gu guztion izenak esaten, baina ez nire, ez zelako akordatzen, ez ninduelako ordu arte inoiz ikusi. Akordatzen naiz amari hanketatik oratzen niola, estu-estu, eta, geroago, aitarekin bat egin genuenean, besoetan hartu ninduela.

Gauza bat esango dizut: hona etorri baino lehen egin nuen nik lehenengo jaunartzea, San Pedro de Tabirako elizan. Amak apaizarekin hitz egin zuen, nola ginen Kubara etortzekoak. Nik ez nekien irakurtzen, baina amak katixima esaten zidan eta nik erantzunak ikasi. Oraindik gordeta daukat Durangotik amak ekarri zuen irudia: Mirarietako Ama Birjina. Estutasunen bat izan dudanean, beti eskatu izan diot ama-birjinari. Fede itzela diot. Horretan erakutsi ziguten txikitatik. Ama igandero joaten zen mezatara Durangon, eta Simon Reyesen ginenean ez zen erraz, soroan bizi ginelako, baina Ciego de Avilan bai, hura herria zelako. Nik esatera, errazago da orain fededuna izatea, lehen baino. Nirekin ez dira inoiz sartu. Beharbada hasieran gorabeherak izan genituen, baina konpondu ziren, eta nik berdin-berdin segitu nuen. Adibidez, gure alaba Diony Mariak teresianoen kolegioan ikasi zuen, eta Carlos Manuel semeak, maristetan.

NORTASUN AGIRIA

Concepción Mañarikua Lezamiz. Durango, 1921. Afrikako gerratik ihesi joan zitzaion aitaita Kubara. Gero, haren bidea egin zuen Kontxi Mañarikuaen aitak eta familia osoak. Kuban da 4 urte zituenetik, eta zenbait oroitzapen lauso Euskal Herrikoak, dela Durango dela Mundakakoak. Bertan egin du bizimodua, etxekoa, iraultzaren aurreko eta ondoko garaietan ere, familia hazteari emana beti. Bi seme-alaba ditu, Carlos Manuel, Marielen ingeniari, eta Diony, unibertsitateko irakasle. Gogo onez esan izan duenez, lau biloba eta hiru birbiloba ditu, “euskaldun baten eta asturiar baten ondorengoak”. Belaunaldi bateko euskaldunetakoa da Kontxi Mañarikua Habanan, gero baino gero urriagoak.



KONTXITA MAÑARIKUA

Orain Habanan bizi zara, baina orduko denboran ez zineten hemen jarri bizitzen.

Ciego de Avilan bizi izan ginen lehenengo, eta han izan ginenean aitak Matanzasen egin zuen lan, zurgin. Gero, Simon Reyesera mudatu ginen, eta berak ireki zuen zurgindegia. Lauzpabost langile ere izan zituen sasoi batean, baina egoera txarra baino txarragoa zen, nonbait, eta zarratu egin zuen. Orduan, Central Stewart azukre-fabrikara jo zuen lan eske. Iraultzarekin, Central Venezuela izena eman zioten fabrika hari. Lana eskatu zuen, eta eman zioten. Eta hil zenean, zentral hartatik jubilatuta hil zen. Hil artean egunero joan zen sorora ganadu haztera, iraultza etorri zen arte. Simon Reyesen bizi izan ginen eta, geroago, hantxe ezkondu nintzen ni, eta hantxe jaio ziren nire seme-alabak. Gure aita euskalduna zen, eta euskalduna zenez, hitzkoa zen, zintzo eta esanekoa. Garai hartan, %50aren Legea indarrean zegoen Kuban, eta haren arabera natiboek zuten lanerako lehen-

Sukaldari

“Ez naiz sukaldari iaioa ere, baina, behin, lehiaketa bat irabazi nuen. Kar, kar, kar. Diony [alaba] izateko esperoan nengoela. Bazen aldizkari bat, *Romance*, sariketa bat antolatu zuena. Gabon afaria prestatu beharra zen lana, lau laguntzako, eta modu onean, merke. Hemen, Kuban, Gabon gauetz gauza asko jateko ohitura dago: frijol beltza, arroz zuria, txerriki errea... eta horren arabera osatu nuen afaria. Ardoaren neurria ere kalkulatu nuen lagun bakoitzeko. Dena! Eta, orduan zer, eta lehenengo saria eman zioten... arraina prestatu nahi zuen bati! Kuban bizian ez da Gabona ospatu arraina janez. Inoiz ez. Hemen txerrikiak du estimazioa! Epaimahaiak, orduan, erabaki zuen Concepción Mañarikuak sari bat merezi zuela, eta urtebetez etxera bidali zuten *Romance* aldizkaria, dohainik. Tira, bada! Ez zen gauza handia ere, baina norberaren barruko poxa, ezta?”

tasuna; haien atzetik ziren atzerritarrak. Ordurako kokortua nengoen ni, hazi xamarra. 12 urte ere izango nituen lege hori eman zutenean. Zarata handia atera zuen, bizi guztia hemen zeraman jendeak lana galdu zuelako. Atzerritar askok alde egin zuen, espainolak eta espainolak ez zirenak. Aita gizon zaildua zen, eta ama, aldez, saindu hutsa. Ama hil zitzaidanean, osasuna ere galdu nuen nik. Hura pena! Egunero dut ama gogoan... Ondo erakutsi ziguten, ondo hazi gintuzten, heziera oneko izan ginen, guztiz ordenatuta bizi ginen. Jatorduetan, adibidez, mahaian ginen denok. Inork mahaira huts egiten bazuen, arrazoi handiren bat beharko zuen! Bestela, hantxe denok, mahaiaren bueltan, harmonian. Eta neu ezkondu nintzenez, eta familia ekarri nuenean, berdin egin nuen, gurasoek erakutsitako bidetik egin nuen aurrera, harmonian.

Zer diozu zeure bizimoduaz uharte honetan?

Hemengo bizimodu normala egin dut Kuban naizenetik, baina bi herri ditut: Espainia ez dut ahaztekoa –bihotzean daramat–, eta Kuba, hemen hazi naiz eta. Hemen, baina ez Habanan, barrurago baizik: Ciego de Avilan. Herri txiki polita da Ciego de Avila, nahiko aurreratua. Ez dakit han euskaldunik izango zen orduan, oso txikia nintzen, eta ez dakit. Izatekotan, ez ziren asko izango, hori seguru, eskolan ez dut batere zenik gogoratzen. Lehen [iraultza baino lehen] eskola publikorik ez zegoela esaten dute batzuek, baina, horretaz hasten direnean, mihian herdoilik gabe esaten diet: “Esaiezu nirekin hitz egiteko!”. Ni bi eskola publikotara joan nintzen, eta bi maistra zoragarri izan nituen. Batak Margarita Carballero zuen izena. Neska txikia nintzela Ciego de Avilatik Simon Reyesera bizitzera joan ginenean, urtebetez egunean maistra haren zorion txartela jaso nuen. Beste maistrak Herminia Miñoso zuen izena, eta harekin hasi nintzen 6 urte nituenean, biga-



TRAZOLA

TXAKOLINA, SAGARDO NATURALA ETA FRUTAK

Trazaola Baserria, 36 - Iurreta (Bizkaia)
☎ 946 816 044 - 685 716 044 - isasitxakolina@hotmail.com



Urregorria

Urteak ez dira alferrik joanak eta bakanak dira Habanan, eta Kuban, garai bateko emigrazioaren lekuko urregorritzkoak. Hor dira Daniel Eugenio eta Emilio Aranguren Echeverria anaiak, Errepublikara garaian Legazpiko alkate izandako Daniel Aranguren semeak. Hor da Maria Luisa Salsamendi Miranda, puntista ezagunaren alaba, Casa de las Americas-eko buruetakoa izana urte askoan. Bakan horietakoa da Concepción Mañarikua Lezamiz. Urregorritzko aleak.



rreren maila aurreratuan; buruargia nintzelako, nonbait. Bigarrenetik seigarrenera bitarteko ikasleak zituen gela berean Herminia hark. Hortik atera kontuak maistra saiatur zen edo ez! Herminia Miñoso harro zegoen, hiru belaunaldi igaro zirelako bere gelatik, eta behin esan zuenez, hiru belaunaldietan ere neu izan nintzen ikaslerik onena. Eta horrek poz handia eman izan dit beti. Erraz ikasten nuen, oso diziplinatua izan nintzen, eta oso saiatur. Bihotzez maite izan nituen maistrak, eta halaxe maite izan ninduten haiek ere ni. Ezkondu nintzenez ere, Herminia bisitatze- ra joaten nintzen. Matanzastarra zen, baina Ciego de Avilán bizi zen. Eskolatik irteten nintzenez ere, gauetz, eskolak ematen nituen maisu batekin. Hark bere liburuak uzten zizkidan... Hemen egoera latzak asko izan dira, ez pentsa hau aulkian eseri eta gitarra jotzea izan denik. Irakasle hark Camagüeyra eraman nahi ninduen azterketa bat egitera, maistra izan nendin, baina egoera ez zen ona, txarra zen, eta, aldiz, aitari dirua eskatu behar nion Camagüeyra joateko, gastu guztiak pagatzeko. Eta ez nion eskatu. Ez nintzen maistra graduatu. Hala ere, ahizpa takigrafo eta mekanografoa zen, eta biak ikasi nituen, hala

takigrafia nola mekanografia, eta azterketa bat egitekoa izan nintzen. Baina, horretarako ere, 30 peso eskatzen zituzten! Eta garai hartan 30 peso 30 peso ziren, eta kito azterketa hura ere niretzat. Bitartean, josten, brodatzen, margotzen eta horiek denak egiten ikasi nuen.

Ez zinen maistra graduatu. Ezkondu eta etxean egin zenuen lan.

Asturiar oinordea hartu nuen senar, Agustín Durán Vázquez, Kuban jaioa. Baina ez dakit askorik senarraren familiaren inguruan, berak ere ez zekielako: umezurtz geratu zen 6 urte zituela. Itxura guztien arabera, nire senar defuntuaren aita gaixotu egin zen hemen. Biriketarik zebilen, eta Asturiasera joan zen, han sendatuko zelakoan. Ez alferrik, han hil zen! Orain dela hemezortzi urte hil zitzaidan senarra, eta orduan Habanara etorri nintzen bizitzen nire ahizpa Isabelekin batera, alabarenera. 93 urte beteak ditut, eta ez nago besterik esateko moduan: hauxe izan da nire bizialdia, argi-ilunez bete, beti den moduan. “Ez da erraza, konpai!”, esan ohi da hemen, eta nik denetarik izan dut, egia esan behar baldin bada. ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko, Geure modura.



www.bizkaia.net

